



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen oinarriak

(The basis of the Law on Equality between Women and Men)



CAMPOS RUBIO, Arantza

Galizia Pasealekua 28, ID
20015 Donostia
arantza.campos@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2007), 16; 5-15]

Sarrera eguna: 2006.06.12
Onarpen eguna: 2007.01.19

4/2005 Legea, otsailaren 18koan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoan sakondu ez, eta legea sortu zeneko testuingurua aurkezten da, legearen eskumen mugak ekartzearekin batera. Legeak adierazten dituen helburuak aurrera eramateko ezinbestekoak diren bi baldintza aztertuko dira: politika publikoetan parte hartze soziala eta partekotasun politikak.

Giltza-hitzak: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea. Emakumeen interesak. Partekotasun politikoa. *Meanstreaminga*, parte hartze soziala.

Sin profundizar en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, se expone el contexto de su creación y los límites de competencia de la misma. Se estudiarán dos condiciones imprescindibles para que los objetivos de dicha ley salgan adelante: participación social en las políticas públicas y políticas de paridad.

Palabras clave: Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Intereses de la Mujer. Paridad política. *Meanstreaming*, participación social.

Sans approfondir le contenu de la Loi 4/2005, du 18 février, relative à l'Égalité entre les Femmes et les Hommes, nous exposons le contexte de sa création et ses limites de compétence. Et nous analysons les conditions indispensables pour pouvoir atteindre les objectifs de cette loi : participation sociale aux politiques publiques et politiques de parité.

Mots clés: Loi pour l'Égalité entre les Femmes et les Hommes. Intérêts de la Femme. Parité politique. *Meanstreaming*. Participation sociale.

1. **Sarrera.** 2. **Gogoeta orokorrak:** 2.1. Zein tesuingurutan sortu zen araua? 2.2. Emakumeen benetako egoera EAEn. 2.3. Mugak eskumene-tan. 2.4. Estatutuaren agindua herri-aginteei berdintasun gaietan. 2.5. Konstituzioaren agindua herri-aginteei berdintasun gaietan. 2.6. Nazioarte-ko Erakundeen gomendioak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruz eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erkidegoaren Politika. 3. **Legearen helburuak.** 4. **Legeak nahi dituen helburuak lortzeko organoak.**

1. Sarrera

Artikulu honetan ez daukat 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa¹, sakon aztertzeke asmorik, gai konplexu hori zehatz jorratzeko asmorik, lan honen helburu xumeak eta espazio mugatua gainditzea bailitzateke hori. Nahi dudana da Legea, nolabait, ongi ezagutzen hasteko zenbait argibide ematea. Horretarako, galdera batzuk erantzun behar ditugu, hala nola, Legea momentu egokian etorri zen eta horren beharrezanik ote zegoen, proposamena nola sortu zen, nolakoa izan zen pres-tatze prozesua, eta nola onetsi zen. Galdera horien erantzunak lagungarri izango zaizkigu Legearen aplikazioaren emaitzak² baloratzeko, indarrean sartu zenetik dagoeneko urtebete pasa-txo igaro baita.

Era berean, Legeari buruzko gogoeta oro-kor batzuk azaldu nahi ditut, geure buruari galdera hauxe egiteko balio izango digutenak: Lege hau bitarteko egokia ote da³ gizarteak beharrezkoak dituen aldaketa politiko eta sozialak gertatzeko⁴? Legearen egitura, edukia eta analisi juridikoa ahaztu barik. Artikuluari bukaera emateko, Legearen eduki material batzuez zehaztasun han-diagoz mintzatuko naiz.

Gauza nabaria ematen du gizartearen, oro har, eta bereziki mendebaldeko gizartearen lor-pen garrantzitsuenetako bat berdintasun formala-

ren lorpena izan dela, hau da, "legearen aurrean denak berdinak garela" ("*todos somos iguales ante la ley*") baieztatu ahal izatea. Gaztelaniazko "*todos*" hori zuzen erabilia zegoen, zalantza barik, aldarrikapen iraultzaile horrekin emakume guzti-guztiak "legearen aurreko berdintasun" horretatik kanpo geratzen baikara. Ez dut polemika sortu nahi, eta emakume feministen borro-kek, direla garai bateko emakume iraultzaileen borrokek, direla emakume sufragista, errepubli-ka, sozialista, komunista eta anarkista, autono-moen borrokek, baita makina bat emakume ezezagunen borrokek ere, "*todos*" hori gure ingu-ruko herrialdeetan behintzat eta oraindik orain "*todos y todas*" bihurtzea lortu zutela gauza ziur-tzat eta jakintzat jo dezagun. Mugimendu feminis-ta osatzen dugun emakumeontzat oso nekeza izan da Legearen aurreko berdintasuna, mundu bidezkoagoa eta demokratikoagoa lortzeko nahi-taezko aurrerapausoa izan arren, hainbat arrazoi-erengatik nahikoa ez zela erakustea eta frogatzea. Lehenengo arrazoa da emakumeek beti ahotan erabili duten eta oraindik erabiltzen dugun⁵ berdin-tasuna ez dela gauza guztien neurritzat gizona hartzen duen berdintasun formala, eta bigarren arrazoa da emakumeok eskatzen dugun berdin-tasuna "izatezko berdintasuna", "benetako berdin-tasuna" dela⁶, "eskubidezko berdintasun" jakinaz gain. Xede horrek Zuzenbidea gure aliatutzat har-tzera behartzen gaitu emakumeok; izan ere, Zuzenbidea arau-emailea da, gauzak nola izan beharko liratekeen esaten du, ez gauzak nolako-ak diren. Hortaz, emakumeen eta gizonen berdin-tasunerako lege honek gauzak nola izan behar diren eman beharko luke aditzera, ez nola diren. Bermatzailea izateaz gain, arau-emailea eta zigortzailea izan beharko luke. Aurrerago mintza-tuko naiz honetaz.

Ez dut uste 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, bezalako legeak beharrezko-ak direla zalantzan jar daitekeenik, nahiz eta hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez Lege hau izatea ez den nahikoa funtsezko helburu demo-kratikoetako bat lortzeko: emakumeen eta gizonen berdintasuna, hain zuzen ere.

1. EHAA, 2005eko martxoaren 2ko 42. zenbakian argitaratua.

2. Nik dakidanez, 2006-04-19ra arte, Eusko Jaurlaritzaren osatura erekatua -ez paritarioa-, gizonen eta emakumeen proportzionaltasunari dagokionez; enpresa bati jarritako zigorra, publizitate sexista erabiltzeagatik, partikular batek, Plazandreak-ek eta Aralar-ek salatu zuten. Eta Plazandreak emakume-en taldeak Arartekoari aurkeztutako keza, lege-hauste sistematikoari buruzkoa. 2006-05-24rako, Emakumeen Defentsa Erakunde-ko arduraduna izenda-tua izan da.

3. Galdera berdina egin geniezaioke geure buruari beste lege autonomiko batzuetaz ere; hala nola: Nafarroako Gobernuaren 33/2002 Foru Legea, azaroa-ren 28koa, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko; Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoko 1/2003 Legea, martxoaren 3koa, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunari buruzkoa; Valenziako Autonomia Erkidegoko 9/2003 Legea, apirilaren 2koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa; Kanariar Uharteetako Autonomia Erkidegoko 12/2003 Legea, apirilaren 4koa, eta baita 2007. urtean Estatuan indarrean sartu-ko den lege berriaz ere.

4. Beharrezkoa da Botere konstituziogilea benetan osatzen duten pertsonen buruzko galdera egitea. Ana Rubiok 156. *Hika* aldizkarian argitaratutako arti-kuluan, 25. orrian, honakoa esaten du: "*Del mismo modo que el proletariado no pudo usar sin más el marco legal establecido por el liberalismo, las mujeres tienen que cuestionar el falso universalismo humano que está en la base de la representación social y política y exigir un nuevo pacto, esta vez sí, integrador de todas y todos sin exclusión. Este nuevo pacto está simbolizado en la democracia paritaria*".

5. Hala nola, Olympe de Gouges-ek, Mary Wolstoneraft-ek eta Joan W. Scott-ek.

6. Ikus SMART, C. "La búsqueda de una teoría feminista del derecho", In: *Delito y Sociedad*, 1998, 11-12 zenbakia; 105-124 orr. CAMPOS, A. *Aportaciones iusfeministas a la revisión crítica del Derecho y a la experiencia jurídica* (argitaratu barik).

2. Gogoeta orokorrak

2.1. Zein testuingurutan sortu zen araua?

Alde batetik, Ibarretxe lehendakariaren konpromiso politikoa nabarmendu behar da. Azken hauteskunde autonomikoetan, lehendakariak berrautatua izanez gero emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legea egingo zuela hitzeman zuen. Oraingo legegintzaldian emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea sortuko zela hitzeman zuen, eta esandakoari tinko eutsi zion. Ondoren, hitzemandakoa bete egin zuen. Beste alde batetik, zenbait sektore sozio-juridikorengandik eskari teknikoak entzuten ziren, izan ere, sexuaren ziozko berdintasun printzipioa lege baten bidez garatu behar zela esaten zuten behin eta berriz, eta ez, orain arte egiten den bezala, jurisprudentziaren bidez, Europako zuzentzauei jarraiki edo Espainiako Konstituzioaren (EK) 14. artikulua interpretatuz. Gainera, emakumeen zenbait sektorek - Mugimendu Feministaren zati bat barne hartuta - emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legea egiteko eskatzen zuten, emakumeek aurre egin behar izaten dieten arazoetatik zati handi batek ezberdintasun kroniko eta estruktural honetan baitu jatorria. Azkenik, eta erakundeen esparruan, Emakundek legearen aurreproiektuaren zirriborroa egingo zuela hitzeman zuen, eta gizarte zibilari bere asmoen berri eman zion:

“Duela hamar urte baino gehiago sortu zene-
tik, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea
eta gainerako Euskal Administrazio Publikoak
lanean aritu izan dira Euskadiko Autonomia
Erkidegoaren esparruan emakumeen eta gizo-
nen arteko berdintasuna sustatzeko xedearekin.
Zeregin hori, Eusko Jaurlaritzak 1991, 1995 eta
1999.ean hurrenez hurren onartu zituen
Emakumeentzako Ekintza Positiborako hiru
Planen eremuan egin da.

Plan horien garapenak esperientzia eta
aurrerapen esanguratsuak ekarri ditu gure
Autonomia Erkidegoan berdintasun politiken
ezarpenari dagokionez. Aldez aurretiko lan
horrek guztiak oso egoera onean jarri du Euskal
Autonomia Erkidegoa berdintasunaren aldeko

bidean beste urrats bat emate aldera, eta orain
arte buruturiko zereginean sakontzeko oinarriak
finkatuko dituen eta politika eta ekintza guztiei,
ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen
eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko hel-
buru horizontala atxikitzeko elkarte-arautegiak
erartzen dituen exijentziei erantzun egokia
emango dien lege-testua egiteari ekiteko⁷”.

Testuingurua hauxe izanik, kontsultak eta
araua egiteko prozedura azaldu nahi nituzke,
lege-proiektu bat bideratzeko exijitutako legezko
betekizunen eta ondoren Parlamentuan eman
beharreko onespeneren kaltetan barik. Bada,
Emakundek emakumeen gizarte-mugimenduko
taldeen⁸ ekarpen eta iradokizunetako batzuk jaso-
tzeko egin duen ahalegin handia azpimarratu nahi
nuke. Aintzat hartutako ekarpenak askotarikoak
dira, baina batzuk benetan garrantzitsuak izan
dira berdintasun materiala lortzeko bidean aurrera
egiteko⁹.

2003ko apirilaren 22an, Emakundek ema-
kumeen talde guztiei “Emakumeen eta Gizonen
Arteko Berdintasunerako Legearen
Aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa” bidali
ziren, ekarpenak egin zituzten¹⁰. Gizarte Zibilaren
ekarpenak egiteko epea 2003ko irailaren 15ean
bukatu zen. Epe horretan, emakumeen taldeek
beren ekarpenak egin zituzten. Emakunderen
datuen arabera, 298 ekarpen jaso zituzten, eta
horietatik %52 onartu egin ziren. Emakundek
emandako aurrerapauso horri buruz oso iritzi ona
dut, demokrazia esku-hartzaileerako bidean aurrera
egiten goazelako.

2.2. Emakumeen benetako egoera EAEn¹¹

Legearen Zioen Adierazpenaren II. atalean
esaten den bezala,

“Emakumeek eta gizonak bete izan dituzten
roletan aldaketa handiak ari dira gertatzen (...)”

Merkataritza, hezkuntza eta arlo politikokoan
zenbait lorpen azpimarratu ondoren, aldaketak

7. Emakundek emakumeen taldeei bidalitako eskutitza, 2003-04-22koa.

8. Hona hemen ekarpenak egin zituzten Gizarte Zibileko taldeak: Bizkaiko, Ermuko eta Arabako Emakumeen Asanbladak, Plazandreak, Zero Taller Soziologikoa, Irungo Kasinoko Elkarteak eta beste 55 elkarte gehiago, Eraldatzen, Belén Martínez (partikularra), Colectivo Feminista Lambroa, EAeko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea, Ekin Emakumeak Elkarteak, Irungo Udaleko lantalde teknikoak, Gasteizko Udaleko lantalde teknikoak, Kudeaketa Eskola, Euskal Herriko Bilgune Feminista, Forum Feminista María de Maeztu, Aralar taldeko batzarkidea, Langile Komisoietako Emakumeen Idazkaritza.

9. Demokrazia paritarioaren testuinguruan.

10. Eskutitzaren eskaera, “edozein erakundek, organizaziok edo pertsona partikularrek egin nahi dituen ekarpenei irekita dagoen dokumentua da, konben-
tzituta baikaude zenbat eta iradokizun, iritzi eta ikuspuntu gehiago izan, hainbat eta hobea izango dela. Gainera, zeharkako gai bati aurre egiten dionez,
berezikiki funtsezkotzat jo dira gehien eragiten diren erakundeek eta organizazioek, etorkizuneko Lege honen edukiaren inguruan ahalik eta adostasunik
handiena erdiesteko asmoarekin gauzatzen dituzten ekarpenak”. Emakunde.

11. Egoera gure eremu geografikoko gainerako emakumeenaren antzekoa da, eta Europako iparraldeko emakumeekin gai batzuetan aldeak daude, baina
beste batzuetan, berriz, ez. Esan beharrik ez dago egoera oso bestelakoa dela herrialde txirotuetan edo emakumeen gutxiagotasuna eta mendekotasu-
na bermatzen duten erlijio-sineskerak nagusi diren herrialdeetan bizi diren emakume gehienentzat. Ikus *Euskadiko Emakumeen eta Gizonen egoerari
buruzko zifrak* izeneko agiria (2005eko urria).

ematen ari direla baieztatzen du, baina berdintasuna ez da ailegatzeko; behintzat hori esaten dute emakumeak buruzko datuek, lan-merkatuarenak, partaidetza politikoarenak, etxeko lanak egitearenak, emakumeen aurkako bortizkeriarenak, pobrezia-arenak, eta abar. Hau esan eta gero horrela jarraitzen du:

“(…) Beste alde batetik, gero eta herritar gehiagok onartzen dute emakumeek enpleguaren arloan, partaidetza soziopolitikoan, autonomia ekonomikoan, astialdia gozatzeari dagokionez eta abarretan duten berdintasunerako eskubidea; halaber, gure gizarteak gero eta begi hobez ikusten du gizonen etxeko eginbeharretan gehiago esku hartu behar dutela eta erantzukizunak banatu behar direla; are, hori guztia beharrezkotzat, komenigarritzat eta zuzentzat jotzen da. Arlo publikoan zein pribatuan emakumeen eta gizonen artean eta ugaltaren eta ustiaketa artean hierkiarik gabeko harremana eratuko den, non lanaren balioa ez den lan hori emakumeek edo gizonen egin izanaren menpe egongo, eta gizarte bat non pertsonak eta taldeek dauzkaten gaitasunak hobeto erabiliko diren, hori da, gaur egun, teoriak nahiz emakumeen eta gizonen berdintasun erreal eta benetakoaren alde lanean diharduten talde feministek eta erakundeek desiragarritzat aurkeztu duten erredua, eta norbanakoen nahiz taldeen diskurtsoan agertuz doana. Beraz, horrek guztiak aukera ederra ematen digu genero-ikuspegi politika publikoetan txertatzeko xedea duen legea taxutzeko”.

Lege honen justifikazioa izan daiteke berdintasuna bultzatu eta sustatzen jarraitu behar zela, politika publikoak esku hartzeko bitarteko gisa erabiliz, eta baita Europa mailako konpromisoerantz behar zitzaiela ere. Helburua sexuen ziozko bereizkeria ezabatzea da eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen eragin, integrazio eta aukera berdintasuna sustatzea, bizitzako arlo guztietan. Hitzak nahikoak ez direla baieztatzeko. Dakigunez, legeak eragina izateko duen ahalmena, baita errealitatea funtsean aldatzekoa ere, lege hori sortzen dutenen borondate politikoaren arabera da, legea eraginkorra izan dadin beste instantzia instituzional eta judizialek egingo dituzten jarduketaz gain. Hurrengo galdera oso garrantzitsua da, baina beharbada ez dugu erantzuna ematerik izango: benetan borondate politikoa al dago Lege honetan? Edo, errazago esanda, politikoki zuzena denari buruzko adierazpen zoragarri baten aurrean al gaude berriro ere? Esan nahi dudana da legeak lortu nahi duen berdintasunaren edukiari heltzen dionean eta defini-

zioa ematen duenean, helburua lortzeko dituen baliabideak zeintzuk diren ez dela konturatzen. Ez du ematen baliabide horiek erdietsi nahi den berdintasun motaren inguruko arazoak ongi konpondu ahal izango dituenik.

2.3. Mugak eskumenetan¹²

Ez dut hutsean esaten emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa bizitzako arlo guztietan, arlo publikoan eta pribatuan, praktikan bermatu beharra dagoela.

Lege honen zioen adierazpena irakurriz gero, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa praktikan ziurtatzeko gauza den baliabide gisa agertzen da. Lege honek, egun, bizitzako arlo guztietan diren ezberdintasunak zuzentzeko gaitasuna eta ahalmena duela uste du. Legea lege integral gisa agertzen da, eta jakin badakigu izatez ez dela eta Zuzenbidez ere ezin litekeela izan. EKren 81. artikulua arabera, lege organikoak oinarritzako eskubideei dagozkienak onesten ditu, baina EKren 149.1 artikulua¹³ debekatu egiten die autonomia erkidegoei kategoria arau-emaile hori. EAEk gaitasun mugatua du emakumeen mesedetan legeak egiteko, nahiz eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako lege batek ezberdintasuna babestu eta eusten duten mekanismo asko eraldatzeko neurriak izan beharko lituzkeen. Hau da, gizonen eta emakumeen artean diren benetako ezberdintasunen konponbide posiblerako –baita “indarkeria sexista” delakoarena ere–, beharrezkoa litzateke berdintasunerarako lege integrala egotea¹⁴, eta Euskal Autonomia Erkidegoak ez ditu lege hori sortzeko beharko lituzkeen eskumenak. Eta egungo egoera politikoa eta juridikoan ezin ditu izan, legeak egiteko gaitasun mugatua baitu. Zuzenbidearen zenbait arlo emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeari zuzenean eragiten dioten gaiak arautzen dituzte, eta Autonomia Erkidegoak ez du arlo horien gainean legeak egiteko eskumenik; eskumen-arlo horiek dira, hala nola, lan arloa zein gizarte babesa, eta baita zigor arloko legeak eta zuzenbide zibileko batzuk ere.

Hortaz, dagoeneko aurrera dezakegu Lege honek berdintasunerako politika bati modu eraginkorrean hel diezaion beharrezkoa litzatekeela, nahiz eta nahikoa ez izan, eskumenetan muga horiek ez egotea¹⁵. Baina muga badela aitortuta

12. Lege hau sortzeko prozesua abiarazi zenean, Estatu mailan ez zegoen emakumeen eta gizonen berdintasunaren oinarritzako eskubidea arautzeko lege organikorik. Gaur egun, dagoeneko bada lege-aurreproiektu bat, Ministroen Kontseiluak 2006ko martxoaren 8an onetsitakoa.

13. 149.1 artikulua: “*Honako gai hauek Estatuaren eskumen eskusibokoak dira*”.

14. Oinarritzako eskubideak -eta berdintasuna talde horretan sartzen da- lege organikoaren bidez bakarrik arau daitezke, eta Espainiako Konstituzioak autonomia erkidegoei galarazi egiten die kategoria arau-emaile hau sortzea, EK-ko 149.1. artikuluan ikusi dugun bezala.

15. Estatu mailako legea aztertu beharko da, onetsi eta indarrean sartu ondoren, berdintasunerako politika eraginkorrei heltzeko eskumenak zein neurritaraino erabili dituzten ikustearren.

ere, eta berdintasun formalaren onarpen eskubi-boa zein zaila den kontuan hartuta, berdintasunari buruzko legeak egiteko borondateari oso ongi deritzot eta beharrezkotzat jotzen dut.

2.4. Estatutuaren agindua herri-aginteei berdintasun gaitan¹⁶

Eskumenen falta hau dela-eta, Zioen Adierazpenaren I. atalean ez da EKri buruzko zuzeneko aipamenik egiten, eta Estatutuaren agindua aipatzen du.

2.4.1. Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1 artikulua, Espainiako Konstituzioan xedatutakoari aipamen bat eginez, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen ditu. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteei pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dadin.

2.4.2. Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta (Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa), Lege horren Zioen Adierazpenean jasotzen den bezala, lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultzatzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratua indartzeko lana ere.

2.4.3. 2/1988 Legea garatze aldera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko hiru plan onetsi ditu. Plan horietan euskal herri-administrazioen esku-hartzearen oinarritzako gidalerroak jasotzen dira, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzeko eremu guztietan bultzatzeari dagokionez.

2.5. Konstituzioaren agindua herri-aginteei berdintasun gaitan

KEren 1. artikuluan, Espainiako Estatuak gizarte gaiekin eta berdintasunarekin duen konpromisoa jasota dago: *“Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi*

bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu”. Baina, 9.2 artikuluan, herri-aginteei berdintasunaren alde zehazki lan egiteko agintzen die: *“Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabana-koaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi eta zailtzen badute, eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura-, eta gizarte-bizitzan ere.”*

Gorago ikusi dugunez, Autonomia Estatutuaren 9.1 artikulua Konstituzioaren agindu horri egiten dio aipamen, baina, ikusi dugun bezala ere, eskumenetan mugak egon badaude, eta, ondorioz, ezinezkoa da Eusko Legebiltzarrak oinarritzako eskubide bati buruz, berdintasunari buruz, alegia, legea ematea.

2.6. Nazioarteko Erakundeen gomendioak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruz eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erkidegoaren Politika

Emakume eta gizonen arteko tratu berdinen eskubidea hala-hola ezarri dela hartuko dugu abiapuntutzat. Horrek ez du esan nahi maila ia arau-emaile guztietan aitortuta ez dagoenik.

Giza Eskubideei buruzko nazioarteko testuek, ez bakarrik Europakoek, printzipiotzat hartzen dute eskubide hori, eta gaika garatuta dago New Yorken 1979ko abenduaren 18an onetsitako Emakumeen Aurkako Bereizkeria-mota oro ezabatzeari buruzko Hitzarmenean. Nazio Batuak, bere aldetik, emakumei buruzko mundu mailako hitzaldiak antolatu ditu aldian-aldian, garrantzitsuenak Nairobiak 1985ean eta Beijingekoa 1995ean izan direlarik. Beijingeko Adierazpena eta Ekintzarako Plataforma oinarritzakoak eta funtsezkoak dira diseinatzen ari diren emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika berriak ulertzeko.

Halaber, ezin ditugu ahaztu emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika ororen ardatz nagusia diren arauak: “enplegu” arlokoak¹⁷, alegia. Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) sexuaren ziozko berdintasunaren gaitan zenbait araudi

16. Euskadiko Autonomia Estatuak berdintasun printzipioa bete behar dela aipatzen du, baina,aldi berean, egia da 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak estatutu bera berrikusi eta egokitzea eskatzen duela. Senak esaten dit berdintasunerako lege berriak berdin jokatu duela EKri dagokionez. Konstituzioaren erreforma gauzatzea nahitaezkoa izango da.

17. Emakume idazle askok honetaz ohartarazi dute; Isabel Otxoak, besteak beste, etxeko langileei buruz egindako lanarekin (argitaratu gabea).

garrantzitsu egin ditu, eta horiek barik erabat ulergaitza izango litzateke edozein berdintasunerako lege. Europako Erkidegoek ere sexuen berdintasunari buruzko araudi sendoak garatu dituzte, Erromako Itunaren 119. artikuluan oinarrituta.

Gaur egun, Erkidegoko Zuzenbideak araudi askotan honako estrategia duela islatzen du: zeharkakotasuna/ekintza positiboa¹⁸. Europako Parlamentuak 2002ko irailaren 23ko Kontseiluan eman zuen 2002/73/CE Zuzentarauan (lana, prestakuntza eta lanbide-sustapena¹⁹ lortzeari dagokionez emakumeen eta gizonen arteko tratu berdinen printzipioaren aplikazioari buruzko Kontseiluaren 76/207/CEE Zuzentaru aldatzekoa), Europar Batasuneko Estatuak estrategia bikoitz hori eta berdintasunaren ikuskera berria erabiltzera behartzen dira. Nahiz eta bertan enpleguaz bakarrik hitz egiten den, logikoa da pentsatzea estrategia bikoitz hau Zuzenbide arlo guztietan lege mailako xedapenak, erregelamenduzko xedapenak eta administrazio-xedapenak egin eta aplikatzerako orduan aplikatu egin behar dela.

Lege hau Legebiltzarrean bideratzen ibili ziren bitartean, komunikabideak isilik egon ziren. Lege hau gutxi atera da hedabideetan, eta uste dut hori oso garrantzitsua dela, arautzen dituen gaiak garrantzi handikoak direlako herritarren sektore askorentzat, nahiz eta gaiari buruzko iritzia emateko aukerarik ez duten izan, esate baterako erretzeari buruzko legearekin egin zen bezala. Aipatutako joera ez da batere aldatu Legea onetsi ondoren²⁰; herritarrentzat, oro har, Legea ezezaguna da, eta ez dira sartzen adituek Legearen beraren helburuez eta metodologiez dituzten eztabaidetan. Ematen du Lege honek, gizarte zibilaren nahia barik, Jaurlaritzaren nahia gehiago islatzen duela. Nire ustez, aurreko hori akats larria da, eta gizarteko sektore batzuek Lege honetan dituzten itxaropen asko zapuztu ditzake; izan ere, Legeak aipatzen dituen hainbat neurri ondorengo erregelamenduzko garapenaren menpe uzten dira, berdintasunerako neurrien zehaztapena nolakoa izango den jakin gabe. Prozesu horretarako beharrezkoak dira gardentasuna eta eztabaida soziala, orain arte egindakoa bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa izango baita. Emakumeen bizi-tzari zuzenean eragiten zioten beste lege batzuek eztabaida sozial handiagoa piztu dute, hala nola dibortzioari buruzko legeak, abortuaren despenalizazioak, etab. Mintzagai dugun Legeari dagokionez, gai batzuek bakarrik jantzi dute eztabaida soziala: kuotek, parekotasunak eta abar, baina oso jende gutxi daki Legea zein neurritaraino ez den betetzen²¹:

a) 63.1 artikulua: *“Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzen da. Organo honen ardura, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan sexuaren ziozko diskriminazio-kasuetan biztanleak defenditzea eta emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioaren betetzea sustatzea izango da”*. Bigarren Xedapen Gehigarriak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzaileen izendapenari buruz zera esaten du: *“Lege hau indarrean jartzen den egunaren osteko hamabi hileko epealdian, lehendakariak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailea izendatuko du”*.

b) Hirugarren Xedapen Gehigarriak Eusko Jaurlaritzak egiturak egokitzeari buruz dio:

“1.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, beren sailaren egitura organikoari buruzko dekretuak aldatzeko behar diren administrazio prozedurak hasiko dituzte, sail bakoitzean administrazio-unitate bat gutxienez izan dadin. Unitate horiek, hain zuzen, lege honetan eta Jaurlaritzak onetsitako berdintasun planean jasotzen diren neurriak sailean egikaritu daitezen sustatuko eta koordinatuko dute.

2.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, lanpostu zerrendak aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko dituzte. Aldaketa horren xedea hau da: emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko programak bultzatu eta diseinatzea eta gai horri buruzko aholkularitza teknikoak ematea eginkizuntzat duten plazak beteko dituen pertsonal teknikoaren eskarmentua edota gaikuntza berezia bermatzea.

3.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lanpostu-zerrenda aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko dituzte. Aldaketa horren xedea hau da: Emakundek lege honetan eratzikitzen zaizkien eginkizunak burutu ahal izatea, bai eta lanpostu zerrenda hori legearen aplikazioak eragiten dituen beharrezanez egokitzea ere.

4.- Eusko Jaurlaritzako organo eskudunek, urtebeteko epean, hezkuntza ebaluatu, ikertu eta berriztatzeko ardura duten organoen eta irakasleei laguntzeko zerbitzuen lanpostu zerrenda aldatzeko behar diren administrazio-prozedurak hasiko

18. 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, estrategia bikoitz hau jaso eta islatzen duen eztabaidatu behar da.

19. Une honetan, lanbide-sustapena garrantzi handia duen gaia da, egun arlo honetan ezberdintasuna sakon erroturik baitago.

20. Legea onesteko adostasun handia egon zen: Eusko Jaurlaritza osoa bat etorri zen, Alderdi Popularrak izan ezik; Legeak kutsu feminista zuelako aurkakotua eman zuela azaldu zuen. Eta adostasun handi hori ikertu beharko litzateke, nire ustez, ohiz kanpoko gauza izan zen garai hartan.

21. *Plazandreok* emakumeen taldeak Arartekoari aurkeztu zion kexan agertzen direnak ekarri ditut.

dituzte; horretarako, hezkidetzaren arloko gaikuntza behar duten plazetarako beharkizun bereziak txertatuko dira”.

d) Azken Xedapenen ataleko Zortzigarrenak dio:

“Generoaren arabeko eragina aurretiaz ebaluatze arauak eta jarraibideak. Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurrietarako arauak eta jarraibideak.

Eusko Jaurlaritzak, urtebeteko epean, generoaren arabeko eragina aurretiaz ebaluatze jarraitu behar diren arauak edo jarraibideak onetsiko ditu, bai eta izapide hori egiteko salbuesita dauden xedapenak ere, 19. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen direnak. Halaber, epe horretan, laguntza-irizpidea edo kontratu-klausula ebaluatze adierazleak ezarriko ditu –20. artikuluko 3. paragrafoan dago aurreikusitako ebaluazio hori–”.

e) Azken Xedapenen ataleko Bederatzigarrenak Enpresetan berdintasun planak arautzeari buruz dio:

“40. artikuluko lehenengo bi paragrafoetan ezarritakoa garatzeko, Eusko Jaurlaritzak, urtebeteko epean, zera ezarriko du: zein enpresa pribatuk egin eta exekutatu behar dituzten emakumeen eta gizonen berdintasun planak edo programak, bai eta horien gutxienezko edukiak eta programen jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ere”.

Jakin badakit urtebete ez dela hain garrantzi handiko aldaketak abiarazteko denbora nahikoa. Baina neuk baldin badakit, are gehiago dakite legebiltzarkide jaun-andreek, eta, baldin bazekiten, zergatik ez zuten beste epe zentzuzkoago bat jarri? Ala benetan gertatzen dena da, baita indarrean dagoen Lege honekin ere, bertan jasota dagoen berdintasunerako eskubidea betetzeko beharrezko borondate politikorik ez dagoela?

Aurreko galdera horren erantzun posible bat Legearen idazkeran bertan aurki dezakegula uste dut. Idazkeran zenbait akats formal ikus ditzakegu; Legean erabiltzen den lengoaiak ari naiz, hain zuzen ere. Esate baterako, II. Ataleko 9. artikuluan eta hurrengoetan erabili den lengoia (“bultzatu”, “aholkuak eman”, “sentsibilizazio-jarduerak egitea” “proposatu”, “orientatu”, etab.) ez da arau juridiko batean agertu ohi dena, eta nahiz eta jakin arau guztiek ez duten zertan inperatiboak izan, bai izan behar direla inperatiboak nahitaez bete behar eta agindu bidez eman behar direnak. “Oztopoak ezabatzea (...) berdintasuna lortzeko” agindua da, eta hortaz, herri-agintek zerbaitea behartzen dituzten arauak agindu inperatiboak izan behar dute, eta araua betetzeko hertsadurazko bitartekoak azaldu behar dituzte gainera. Lege honek ez du askotan egiten. Herri-administrazioa-

ren eginkizuna, sarritan, berdintasunerako baldintzak sustatzera mugatu da, eta ez da gero praktikan neurtu eta erkatu ahal izango liratekeen konpromiso zehatzik finkatu. Definizio ugari agertzen dira, berdintasunerako eskubidearen edukiari buruzkoa, bereizkeriaren debekuari buruzkoa, herri-aginteen berdintasunerako politikekiko konpromisoari buruzkoa, baina ez dira definizio berriak: 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaz geroztik, ondoz ondoko arauak gero eta saltsa meheagoa egiten joan dira bereizkeria zuzenaren, zeharkako bereizkeriaren, ezkutuko bereizkeriaren... kontzeptuetan, baina lege hau, hain zuzen, beharrezkoa da lege-aldarrikapenen garapen teorikoak bereizkeria argiak ekiditeko balio dezan lortzeko.

Nola lortuko dugu lege bat betetzea, baldin eta hitzez hitz aztertuta ez badu herri-administrazioa berdintasunerako aurrerapauso zehatzak ematera behartzen? Legeak helburu definituak ezarri beharko lituzke, helburu horiek lortzeko prozesuak diseinatu, eta helburuok betetzeko epeak finkatu, eta, bete ezean, ondorio motaren bat aurreikusi beharko luke.

3. Legearen helburuak

Bereizkeria esplizituak ezabatzea helburu zuten lege-erreformak egin dira eta, horrela, emakumeak benetan balia daitezke beren askatasunaz. Baina lege-erreforma hauek ez dira berdintasuna lortzeko nahikoak izan. Emakumeen eta gizonen berdintasunak egun arauetan dagoen ordena iraultzea dakar. Beharrezkoa da Zuzenbidearen arloari orain arte legegileek pribatuz hartu dituzten gaiak gehitzea. Legean premia hori badagoela hautematen dugu; behintzat, oinarriko bi helburuetan. Lehenengoa, metodologiari buruzkoa, Legeko II. Tituluan agertzen da eta, euskal herri-administrazioen eta aginteen jarduketara egokia izan dadin, genero-ikuspegia integratu behar dutela eta euskal herri-administrazioetako langileak behar bezala gaitu behar direla azaltzen da. Bigarrena, neurri zuzentzaileak sustatzeari buruzkoa, III. Tituluan agertzen da, eta zuzenago eragiten dio emakumeen bizitzari.

Legeak azpiegitura instituzional berria diseinatu du planteatzen dituen helburuak lortzearen, eta I eta IV. Tituluek azpiegitura instituzional berria azaltzen dute.

Lege honek baditu hainbat ekarpen on eta oso garrantzitsu emakumeen egoera hobetu ahal izateko; batzuk aipatzeagatik: Legearen arabera, 1) Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta udalek urteroko aurrekontuetan berdintasun-politikak garatzeko behar diren ekonomia-baliabideak finkatu behar dituzte (14.9); 2) euskal herri-adminis-

trazioek ezin izango dute inolako laguntzarik eman, ez eta parte hartu ere, kultura –jaiak barne, arte, kirol eta euskararen normalkuntzaren inguruan egiten den inongo ekitalditan, sexuan oinarrituriko bereizketa ematen bada (25.1 eta 2 art); 3) euskal herri-administrazioak emakume eta gizonen berdintasun arloko agenteen unibertsitate-prestakuntza berezia bultzatuko du (33.3 art); 4) herri-administrazioan lanpostuak eskuratzeko eta sustatzeko hautapen-prozesuetan trebakuntzaren ikuspegitik gaitasun bera badago, emakumeek lehentasuna izango dute kidego, maila edo eskala horietan emakumezkoak %40 baino gutxiago badira (3.7 art); 5) edozein sari mota emateko sortzen diren epaimahaietan, sexu bakoitzaren ordezkaritza gutxienez %40koa izango da epaimahaia lau kidek baino gehiago osatzen dutenean. Gainerako kasuetan, emakume eta gizonak egon beharko dira (20.5 art); 6) Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, hautagaitzerrendetan %50 gutxienez emakumezkoak izango dira. Gobernuan sexu bakoitzaren ordezkaritza gutxienez %40koa izango da (azken xedapenen ataleko 4.a); 7) sexu-bereizketa egiteagatik zigor administratibo eta penala jaso duen erakundea hiru eta bost urte artean laguntza publikorik gabe zigor daiteke (79. art eta azken xedapenen ataleko 6.a); 8) etxeko tratu txarrak direla-eta etxea utzi eta beste etxe batera doazen emakumeek oinarritzeko errenta jasotzeko eskubidea izango dute, etxean hartzen dutenak senitartekoak izan ala ez (58.1 art); 9) banantze eta dibortzio-prozesuetan elikadura-pentsioak kobratzea bermatuko duen baliabideak finkatzen ditu (45.2 art), etab.

Ikuspuntu juridikotik, arlo publiko eta pribatuaren arteko mugak ezabatzeke ildo honetan, kontu bitxi batekin egiten dugu topo: mendeko pertsonen ugalketa eta zainketa²². Hain garrantzitsuak diren kontu hauek ez dira oharkabean pasatu legegileentzat, eta, horrela, kontu zail honek ez du kokapen egokia Legean, nire ikuspuntutik.

Mendeko pertsonen ugalketa eta zainketa funtsezko kontua da emakumeen egungo egoera errealean. Lege honek pertsonak zaintzeko gizarte-zerbitzuak "Bizitza Pertsonala, Familia eta Lana Uztartzea" deritzon IV. atalaren barruan kokatzen ditu; beraz, zainketaren emale nagusia familiak izaten jarraitzen du.

"La atención social de las personas dependientes debe tratarse como un derecho de ellas mismas, no un remedio subsidiario para cuando su familia no puede atenderles. Hay que promover verdaderamente que las mujeres escojan si quieren cuidar o no; para eso debe haber servicios. La sujeción de las mujeres a los ritmos que

exige el cuidado de las personas dependientes de su entorno familiar es uno de los pilares de la discriminación; crear servicios sociales es una política para la igualdad que libera a las mujeres de ataduras físicas y psicológicas"²³.

Badakigu zerbitzu publikoak bermatzen ez badira emakumeok lanaldi bikoitz, hirukoitz edo lauukoitz egiten jarraituko dugula. Alde bakarra da orain arte "doako lana" zena lan ordaindu bihurtuko dela zeharbidez, nahiz eta modu ez hain garestian administrazioarentzat; izan ere, "Autonomia Erkidegoko Administrazioak laguntzak emango dizkie etxeko beharizanean erantzuteko mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziak, baimenak eta lanaldi-murrizketak hartzen dituzten langileei. Laguntzok erregulatzen dituzten arautan jasota egon behar dira aukera horiek baliatzen dituztenak lanera itzultzea errazteko neurriak, bai eta beren lanbide-sustapenean kalterik izan dezaten saihestekoak ere" (49.3 art). Neurri horiek langileen zati txiki bat bakarrik hartzen dute kontuan; Administrazioan lan egiten ez duten pertsona guztiak kanpo geratu dira. Gainera, lortu nahi den helburua lortzeko egokia ez den lengoaia aurkitzen dugu berriro ere: zer esan nahi du "lanera itzultzea errazteko neurriak" esamoldeak? Izatekotan, "bermatzeko" esan beharko luke. Bestetik, ez da zuzena pentsatzea gizonen eta emakumeen dagoeneko etxeko lanak bien artean egiten dituztela, eta bakoitzak lan erdia egiten duela. Hala balitz, Lege hau ez litzateke hain beharrezkoa izango. Arlo publikoan ez badugu baterako erantzukizuna bermatzeko bitartekorik, ez dut uste emakumeek gizonen pertsonak zainarazteko botere pribaturik izango dutenik. Ez dago batere gertu gizonen aukera hori libreki egingo duten eguna eta, egia esateko, Lege honek ez du inola ere zuzentzen egun ardua hori emakumeen aukera edo hautaketa ez dadila izan.

4. Legeak nahi dituen helburuak lortzeko organoak

Iruzkin honen hasieran dagoeneko esan dugun bezala, Legea ezin da izan (lan esparruan, zigor esparruan edo esparru zibilean) ezberdintasuna babestu eta eusten duten mekanismoak eraldatzeko neurriak dituen berdintasunerako lege integrala, baina bai izan daiteke, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio osoa behartuko duen berdintasunerako legea. Legearen I. Tituluko II. Atala Euskal Herriko administrazioen arteko erakunde antolaketa eta koordinazioaren ingurukoa da, hau da, berdintasunerako organo

22. Egun, onesteko bidean dago norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasun egoeran diren pertsonen arretarako estatu mailako legea.

23. CAMPOS, A. "El anteproyecto de ley de igualdad de mujeres y hombres y el ejercicio de la ciudadanía", *Hika*, 2004, 156. zenbakia; 25. or. Ideia bera aurki dezakegu feministen zenbait testutan, hala nola, Helga María HERMES. *El poder de las mujeres y el Estado del Bienestar*, Madrid: Vindicación Feminista, 1990. Gizarte-zerbitzuen ongizateko estatua nahitaezko baldintza da emakumeen liberazioa erdiesteko.

edo erakundeen ingurukoa. Atal honetan jar daitezkeen eragozpenak sakonak dira benetan; izan ere, azpian dagoen eztabaida teorikoaren ondorio praktikoek administrazioaren egungo jardunbidea gogotik alda dezakete kontu honetan. Gogoratu behar dugu honetan guztian oso urrun gaudela tradizio eta sentsibilizazio handia duten herrialdeetan gai honetan erdietsi dituzten lorpenetatik, herrialdeok urteak baitaramatzate emakumeok pairatzen dugun bereizkeria eta ezberdintasuna desagertzeko helburua duten programa bereziak abian jartzen. Legea berdintasun printzipioaren zeharkakotasuna gehitzearen alde bakarrik agertzen da ia, eta ahaztu egiten du zeharkako politika hau aurrera eramateko gauza izan behar diren erakundeak eta berdintasun gaietan aditua den pertsonal teknikoa egon behar direla.

Mainstreaming edo zeharkakotasun politika gurearen moduko administrazioan aplikatzea hanka-sartze galanta da, nire iritziz, gurean jende gehienak ez dakielako zeintzuk diren gure erkidegoko emakumeen arazoak eta errealitateak. Ez dugu esaten berdintasun printzipioaren zeharkakotasunari uko egin behar zaionik; esan nahi duguna da gure errealitate ezegonkorra oso kaltetuta gertatuko litzatekeela, politika eta erakunde berezirik gabe, baita ongi prestaturiko pertsonal berezirik gabe ere²⁴. Gure ustez, administrazioa, orokorrean, ez dago emakumeen eta gizonen berdintasunaren beharraz behar bezain mentalizatuta, eta, zalan-zarik gabe, ez dago ongi prestatuta.

Egun zeharkakotasuna ezarri nahi duten herrialdeek urteak daramatzate berdintasunerako politika bereziak garatzen. Bide hori egin eta amaitu dute, eta egun zeharkakotasunari heldu nahi diote, aurrerapausoak ematen jarraitzeko bitarteko egokia baita. Baina gure Erkidegoan, zenbait udaletan, berdintasunerako politika bereziak utopia hutsak dira, hots, erabat hutsalak dira. Herritarrei azaldu beharko genieke behar bezala prestatuta ez dauden eta gizon-emakumeen berdintasunarekiko sentikor ez diren politikariek eta teknikariek ezarriko dela zeharkakotasuna. Ez dugu uste gure komunitateko politikariek eta beraien erakundeek gai honetan aitzina hartu dutenik; emakumeok ongi dakigu hori²⁵.

Kontu teoriko honek, nola ez, proposamen praktiko ezberdinak ditu, berriro ere. Legeak proposatzen duenaren aldean, badago beste egitura aukera bat, eraginkorragoa dena, Legeak lortu nahi dituen helburuak lortzeko begira. Esate baterako, Emakunderen ordezkari (Lehendakariaren atxikitako Erakunde gisa), Emakumeen eta Gizonen

Berdintasunerako Saila egon liteke, eta, Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailak bezala, Jaurlaritzaren parte izango litzateke, zuzenean, eta gainerako antzeko barne-egituraz hornituta egongo litzateke (bere aurrekontuko diru-hornidura, zuzendaritza nagusiak, hala badagokio, langileak...). Bere helburua izango litzateke Sail guztietan eragina izatea, edozein lege-proposamenek eta edozein motako politikak generoaren eta berdintasunaren gaiak kontuan har ditzaten. Hori hala balitz, Defentsa Erakundearen Sailaren barruan egon litekeela proposatzen dugu, berdintasunerako organo espezializatu gisa. Gainerako Administrazioak sorosteko eginkizunak izango litzateke, berdintasun printzipioa urratzen ez dela zaintzeko.

Era berean, Foru Aldundien gobernua ere antzeko hierarkiako egiturak finkatu beharko lirateke. Legeak Aldundiak bakarrik behartzen ditu - ezinbestekoak gure herrialdeko politika publikoan beraien egiturak moldatzera:

“beren egiturak egokitu behar dituzte, halako moduz non administrazio bakoitzak²⁶ emakumeen eta gizonen berdintasun politikak bultzatu, programatu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak ematen jardungo duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat izango baitu (...)”

(10.1.art). Benetan zehaztasun gabeko formulazio honek, galarazi egiten du Legea Aldundiek beren organigraman garrantzitsua izango litzatekeen organo bat (Berdintasunerako Foru Departamentua) sortzeko hartu beharko luketen konpromisoa ezartzeko begira askoz ere zehatzagoa eta mugatuagoa izatea. Aurrekontuez eta ongi prestatutako langileez hornituta egon beharko litzateke; izan ere, horrela bakarrik bermatu daitezke berdintasunerako politika publikoaren zeharkakotasuna. Badakigu Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasun Planak osatzen dituzten ekintza ugari Aldundien beharra dutela edo Aldundiak inplikatzeko dituztela, baina ezin dira gauzatu, ekintza horiek aurrekontuetan sartzerako behartu behar duten jarduketako programak falta direlako.

Eta Zinegotzigo bereziak ezarri beharko lirateke udaletan. Zinegotzigo hauen ezaugarriak Foru Departamentuen ezaugarrien parekoak izango lirateke, baina bestelako jarduketako eremua izango lukete.

Legeak Berdintasun Planetan erakundearen aurrekontuetara lotutako jarduketako programak

24. “Berdintasunerako agentea edo teknikaria” ezinbestekoa iruditzen zaigu politika mota hauek aurrera eramateko; izan ere, guztion erantzukizuna direnez, bertan behera geratzeko arriskua dute. Gainera, gure unibertsitate publikoan dagoeneko eskaintzen da prestakuntza hau.

25. Gure Erkidegoan, udal batzuetan, herritarren ordezkari nagusiak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aurka agertzen dira argi eta garbi. Gogoratu besterik ez dugu Irungo eta Hondarribiako alardeekin gertatzen dena.

26. Aukera honetaz baliatu nahi dut Arabako Foru Aldundian “berdintasunerako teknikari” lanpostua kendu egin dutela salatzen; horren arrazoia zeharkakotasun politika famatua delako susmoa dugu. Egia esan, lehen bagenekien berdintasunerako zerbitzuak zer egiten zuen, baina, egun, oraindik ez daki-gu zertan datzan Arabako Foru Aldundiaren zeharkakotasun politika.

sartzera behartu beharko luke, baita Tokiko Korporazioetan jarduketa-programok nahitaezkoak izatera ere.

Berdintasun politikarako egitura edo bitarteko mota hori proposatzeko arrazoia zera da: Berdintasun Planetan (Administrazioaren hiru mailetan: autonomikoan, foralean eta lokalean) erakundearen aurrekontuetara lotutako jarduketa-programak sartzeko beharrezana dagoelako, neurri handi batean, eta, halaber, ekintzak zenbatsita eta dagokion erakundearen arlo ezberdinetako aurrekontu-epeldi jakinetara esleitura egon beharko lirakeelako, bete egiten direla behar bezala ebaluatzearen. Legeak ez du halakorik biltzen; horrenbestez, baliteke denbora asko igaro behar izatea berdintasun planek politikoki egokia den diskurtsoa alde batera utzi arte eta berdintasuna erdiesteko bitarteko bihurtu arte. Gaur egun, udal askok beraien Berdintasun Plana dute, elkarren arteko loturarik gabeko orri piloa hain zuzen, tiraderaren batean gordeta, herritarrek existitzen denik ere jakin gabe. Legeak honakoa baino ez dakar horri buruz:

“Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, Lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan” (14. art).

Diru-laguntzak eta Herri Administrazioak ekonomia orokorrean berdintasun politikak ezartzeko bideak dira. Diru-laguntzak eta kontratuak emateko orduan, Legeak ez ditu erakunde onuradun eta esleipendunen berdintasun planak eta langileen sexuen arteko orekaren baldintzak ezartzen. Legeak hau dena finkatu gabe uzten du.

Bukatzeko, bi gauza labur esan nahi ditut. Lehenengoa, politika publikoetan parte hartze soziala bermatzeari buruz, eta bigarrena, parekotasunari buruz.

Zerbait sortu behar da emakumeen elkarte eta berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen partaidetza bideratzeko. Legeak hauxe esaten du:

“Autonomia Erkidegoko Administrazioak beharrezkoak diren baliabideak bultzatu eta jarriko ditu entitate bat sortzeko, emakumeek eta herritarren elkarteek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan eta modu askean parte hartzeko bidea eskainiko duena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri-administrazioekin hitz egiteko solaskide onargarria izango dena” (24.5.art).

Ikusten dugun bezala, entitate bati buruz hitz egiten da (Jaurilaritzan, Foru Aldundietan eta

udaletan?), baina Legeak ez ditu derrigortzat jotzen; beraz, hainbat tokitan entitate horiei “Emakumeen kontseiluak” deitzen zaie, eta horien sorrera erakundearen gobernuaren borondatearen arabera izango da.

Legearen zehaztasun falta nabaria da; horregatik, organo horiek arinak eta irekiak izan beharko luketela esateko atrebentzia hartzen dut. Beraien arautegiak emakumeen elkarten partaidetza eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta emakumeen eskubideak defendatzea, besteak beste, helburutzat duten erakundeen partaidetza bermatu beharko luke; hortaz, Administrazioak solasaldi erreala eta eraginkorra ahalbideratu beharko luke. Berdintasun Kontseilua²⁷ erabat autonomoa eta independientea izan beharko litzateke, hau da, lehen aipatutako elkarteek besterik ez lukete osatu behar, izaera juridikoz zein aurrekontu nahikoaz hornitua, eta bilerak egiteko orduetan malgua izan beharko litzateke; bileren aktak idatziz egin beharko lirake, eta ordezkariak malgua izan beharko lukete.

Parekotasunaren gaia –eta parekotasuna diot, ez kuotak–, guztiz gai formaltzat har daiteke. Sexu batekoa edo bestekoa izateak ordezkariak demokratikorako garrantzirik ez duelakoan bagaude, pentsatu behar dugu gutxi gorabehera gizakien %50 emakumeak eta beste %50 gizonak garen gizarte honetan, ordezkariak-organoko politiko guztien osakerak errealitate hori islatu beharko lukeela, eta egiten ez badu, zilegi da pentsatzea zerbait ongi ez doalako dela, zerbaitek huts egiten duelako. Hutsa da gure gizarteak ez duela emakume eta gizonen berdintasunean uste osoa.

Legeak parekotasunaz hitz egiten du, %50az, baina Legea zorrotz aztertuz gero, ezin dugu parekotasuna dagoenik esan. Azken xedapenen ataleko laugarrena har dezagun, honakoa baitakar hitzez hitz:

“4. Alderdi politikoei, federazioei, koalizioei edo hautesleen elkartei aurkezten dituzten hautagai-zerrendetan, %50, gutxienez, emakumeak izango dira. Proporzio hori hautagai-zerrenda osoan eta sei izeneko tarte bakoitzean mantenduko da. Lurralde historikoko hauteskunde batzorde eskudunek, inola ere, artikulua honetan hautagaien nahiz ordezkarien kasuan ezartzen dena betetzen duten hautagai-zerrendak baino ez dituzte onartuko”.

Baina “legea jarri zunak, tranpia jarri zun”. Hauteskundeetan 6 ordezkari izango dituzten alderdiei, federazioei, elkartei eta abarrek parekotasuna beteko dute, baina Legeak hautagai-zerrenden lehenengo hiru pertsonak gizonak izan daitezela baimentzen du. Horrenbestez, gizonen

27. Madrilgo Berdintasun Kontseilua erreferentzia ona litzateke.

gainordezkaritza egon daiteke berriro, egun gertatzen den bezala. Logikoki, parekotasuna zaintzeko modu bakarra “kremailera zerrendak” deritzen lehentasun-ordena da: emakumea-gizona, emakumea-gizona edo alderantziz.

Badakigu demokrazia ordezkatzaila ezin dela gizartearen isla bete-betea izan, isla izango dela bermatzeko aukera bakarra herritar guztiak batzar orokorrean biltzea izango bailitzateke. Ordezkaritzak dituen mugen barruan, zaila da ordezkartzan bete beharko liratekeen mailei buruz akordioa lortzea. Eta, ondorioz, galdera hauxe egin behar diogu geure buruari: zer nahi dugu, emakumeen interesak emakumeek ordezka ditaztela, ala emakumeen premiak eta kezkek beren gogoko alderdiak ordezkatzeko?

Parekotasun politikak (%50) politika-arloan emakumeen interesen alde lan egiteko birtualtasuna dauka, eta gakoa da emakumeok bere interesak ordezkatzeko izan behar dituen taldea garelako agerian jartzea, neurritz. Bada, garrantzitsuen dagoeneko ez litzateke emakume indibidual gisa ordezkatuak izatea –botoa emateko eta hauteskundeetan euren burua hautagai gisa aurkezteko eskubidea duten emakumeak betiere–, baizik eta talde gisa ordezkatuak izatea. Sapiro-ren argudioa ekarriko dugu, froga modura: *“Debido a su posición materialmente diferente en la sociedad, las mujeres tienen intereses objetivamente diferentes de los hombres, pero el ingreso de las mujeres como actores individuales en la escena política no significa que se persigan activamente esos intereses”*²⁸. Eta arazoa honetan datza: emakume politikariek konpromiso politikorako estilo ugari gauzatzen dituzten arren, oso zuhurrak dira emakumeek hitz egiterakoan, gehiegi esango nuke. Hortaz, emakumeentzat mesedegarri diren politikak inguruabarren aldaketaren azpiproduktu gisa sartzen dira sarritan (lan-merkatuaren premia berriak edo beste gizarte-talde batzuen premiak, hala nola, AEBetako arraza gutxiengoaren aukeraberdintasuna). Baliteke emakume gehiago aukatzea beharrezkoa izatea, baina ez da nahikoa. Parekotasuna ez da oraingoz aski, nahiz eta estrategia izan. Suposa dezakegu parekotasun hori gizartearen isla izango dela egunen batean, eta gizarte horretan sexua pertsonaren ezaugarria izango dela, baina politikoki ez duela garrantzirik izango. Emakumeak izan behar dira baina, nire ustez “emakume feministak” gainera.

28. Virginia Sapiro, “When are interest interesting? The problem of political representation of women”, *American Political Science Review*, 75 (3)

CAMPOS RUBIO, Arantza. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen oinarriak. *Eleria*. 16, 2007, 5-15